



EMI/AIO

12P A.D. 18-C/2019

Bide Azpiegituretako Departamentuak Olanar errekararen gainean dauden lau zubiren egitura konpontzeko asmoa du; zehazki, Oñatiko Olabarrieta auzoan daude, GI-2630 errepideko 13 eta 14 KPen artean. Horretarako, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza Zerbitzuak aurkeztu du **Oñatin, GI-2630 errepidean, Olanar errekararen gaineko lau zubi birgaitzeko proiektu berrikusia (2-OF-34/2016-RP)**. Proiektua Diputatuen Kontseiluak onartu du gaurko bileran bertan, 2019ko maiatzaren 7an.

Proiektuak planteatzen du gaur egun dauden hormigoizko handitzeak berreraikitzea, errepidearen zabalera guztia hartuz, errepideko erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta egiturek proiektatu zireneko balio-bizitza berreskuratzeko.

Proiektua bi fasetan banatu da, obrek zirkulazioan eta errekan duten afekzioa ahalik eta txikiena izan dadin. Besteak beste, proiektuan azaltzen dira fabrika obretan egin beharreko iraunkortasun jarduketak, funtsean honako hauek: hondatutako piezak garbitzea eta, hala badagokio, berregitea, eta aurrez fabrikatutako lauzak jartzea, galtzada osoa hartuz. Euste elementuak ere jarriko dira, hau da, hormigoizko karelak, eta dagokion zoladura.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 519.238,09 euro da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 109.040 euro, eta lana burutzeko epea lau (4) hilabete.

Kontratuaren balio zenbatetsia 519.238,09 euro da, Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 101. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

El Departamento de Infraestructuras Viarias se encuentra interesado en proceder a la reparación estructural de los cuatro puentes sobre la regata Olanar existentes en el barrio de Olabarrieta de Oñati, entre los p.k. 13 y 14 de la carretera GI-2630 para lo que el Servicio de Rehabilitación de Infraestructuras Viarias e Innovación ha presentado el PROYECTO REVISADO DE REHABILITACIÓN DE 4 PUENTES SOBRE LA REGATA OLARAN EN LA CARRETERA GI-2630 EN OÑATI (clave 2-OF-34/2016-RP), que ha sido aprobado en esta misma sesión del Consejo de Gobierno Foral de fecha 7 de mayo de 2019.

El objetivo del proyecto es la reconstrucción de las actuales ampliaciones de hormigón que cubrirán el ancho total de la carretera a fin de garantizar la seguridad de los usuarios y devolver a las estructuras la vida útil para la que fueron proyectadas.

El proyecto que se divide en dos fases a fin de minimizar la afcción al tráfico y a la regata, describe, entre otras cosas, las actuaciones de durabilidad sobre la obra de fábrica que consistirán básicamente, en la limpieza y reconstrucción en su caso de las piezas deterioradas, en la colocación de las losas prefabricadas que cubrirán completamente la calzada con los elementos de contención consistentes en pretilos de hormigón y su pavimentación.

El presupuesto base de licitación asciende a 519.238,09 euros, más 109.040,00 euros correspondientes al 21% de IVA y un plazo de ejecución de cuatro (4) meses.

El valor estimado del contrato, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP), asciende a 519.238,09 €.



EMI/AIO

12P A.D. 18-C/2019

Kontratazio espedientearen proiektuaren aldeko ikuskaritza txostena dago, 2019ko apirilaren 9koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 235. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta txostenean espresuki adierazten denez, proiektuak betetzen ditu legeak eta erregelamenduak eskatutako baldintza guztiak.

Horrenbestez, proiektuan aurreikusitako obrak egitea komeni denez, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak proposatuta,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Onestea obra hauek kontratatzeko administrazio klausula partikularren agiria: **Oñatin, GI-2630 errepidean, Olaran errekaaren gaineko lau zubi birgaitzeko proiektu berrikusia (2-OF-34/2016-RP).**

Bigarren.- Onestea aipatutako proiektuko obrak kontratatzeko espedienteak. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 519.238,09 euro da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 109.040 euro, eta balio zenbatetsia 519.238,09 euro, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 101. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Lanak egiteko aurreikusitako epea lau (4) hilabete da eta kontratua prozedura irekia sinplifikatuaren bidez eta hainbat irizpideren arabera adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea erabaki da.

Hirugarren.- Baimentzea sei ehun eta hogeita zortzi mila berrehun eta hirurogeita hemezortzi euro eta bederatzi zentimoko gastua (628.278,09 €), proiektu horretako obrak kontratazioa finantzatzeko, 1.0710.120.611.02.06.2019 partidaren kontura.

Laugarren.- Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea, lizitazioko tramiteak egin ondoren

A los efectos de lo previsto en el artículo 235 LCSP, obra en el expediente de contratación el informe favorable de supervisión, de fecha 9 de abril de 2019, con declaración expresa de que el proyecto de referencia reúne la totalidad de los requisitos exigidos por dicha ley y su reglamento.

Visto lo anterior, así como la conveniencia de ejecutar las obras contempladas en el mencionado proyecto, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias,

ACUERDA

Primero.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de las obras del PROYECTO REVISADO DE REHABILITACIÓN DE 4 PUENTES SOBRE LA REGATA OLARAN EN LA CARRETERA GI-2630 EN OÑATI (clave 2-OF-34/2016-RP).

Segundo.- Aprobar el expediente de contratación de las obras del citado proyecto, con un presupuesto base de licitación de 519.238,09 euros, más 109.040,00 euros en concepto de IVA (21%), un valor estimado de 519.238,09 euros, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley de Contratos del Sector Público, con un plazo de ejecución de cuatro (4) meses y disponer la apertura del procedimiento abierto simplificado, con pluralidad de criterios de valoración para la adjudicación del contrato.

Tercero.- Autorizar un gasto de seiscientos veintiocho mil doscientos setenta y ocho euros con nueve céntimos (628.278,09 €) para financiar la contratación de las obras del citado proyecto con cargo a la partida 1.0710.120.611.02.06.2019.

Cuarto.- Facultar a la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias para decidir sobre la adjudicación y formalización del



EMI/AIO

12P A.D. 18-C/2019

kontratua adjudikatzeko eta formalizatzeko; eta kontratua zehatz-mehatz betetzeko komeni diren egintza, erabaki eta ebazpenak emateko, proiektu aldatua eta kontratuaren aldaketak onestea barne, administrazio klausula partikularren agirian aurreikusitako aldaketen kasuan.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, **administrazioarekiko auzi errekurtsua** aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian. Horretarako, **bi hilabeteko epea** dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, partikularrek aukera dute **berraztertze hautazko errekurtsua** aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, **hilabeteko epean**, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

contrato, previos los trámites licitatorios oportunos, y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarios para su correcta ejecución, incluida la aprobación de proyectos modificados y modificaciones de contrato, en el caso de las modificaciones previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia, 2019ko apirilaren 12a.

San Sebastián, 12 de abril de 2019.

BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATUA / LA DIPUTADA FORAL DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

Sin. / Fdo.: Aintzane Olarbide Iruretagoiena.

DIPUTATUEN KONTSEILUA.- Aurreko proposamena onartzea erabaki du.

EL CONSEJO DE GOBIERNO FORAL.- Acuerda prestar aprobación a la precedente propuesta.

Donostia, 2019ko maiatzaren 7a. / San Sebastián, 7 de mayo de 2019.

NORI JAKINARAZIA / COMUNICADO A:

OÑATIKO UDALA

FINANTZAK ETA AURREKONTUAK / FINANZAS Y PRESUPUESTOS

